

DONOSTIAKO HIRI-ANTOLAMENDUKO PLAN OROKORRAREN BERRISKUSPENAREN AURRERAKINA

AVANCE DE LA REVISIÓN DEL PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA DE
DONOSTIA-SAN SEBASTIÁN

Genero-ikuspegia txertatzeko lanak – Hirigintza inklusiboa

Trabajos para la integración de la perspectiva de género – Urbanismo inclusivo



I. ERANSKINA. PARTAIDETZA-MEMORIA ANEXO I. MEMORIA DE PARTICIPACIÓN

2023ko abendua

Diciembre 2023



AURKIBIDEA

A. AURREKARIAK ETA LAN-ESPARRUA.....7

A.1. DONOSTIAKO HIRI ANTOLAMENDUKO PLAN OROKORRAREN (HAPO) AURRERAKINA	7
---	---

A.2. GENERO-IKUSPEGIA HIRI-ANTOLAMENDUKO PLAN OROKORRAREN BERRIKUZPENAREN AURRERAKINEAN TXERTATZEKO LAN-ESPARRUA.....	7
--	---

B. PARTAIDETZA-PROZESUAREN DESKRIBAPENA.....9

B.1. HELBURUAK, METODOLOGIA, ERAGILEAK ETA PARTE-HARTZEKO BIDEAK.....	9
B.1.1. PARTE-HARTZE PROZESUAREN HELBURUAK	9
B.1.2. PARTE-HARTZEKO METODOLOGIA	9
B.1.3. ERAGILE PARTE-HARTZAILEAK.....	10
B.1.4. PARTE-HARTZE BIDEAK	11

B.2. PARTE-HARTZE PROZESUAREN KOMUNIKAZIOA.....	15
---	----

B.3. PARTE-HARTZEAREN ADIERAZLEAK.....	15
B.3.1. PARTE-HARTZAILE KOPURUA ETA BIDEAREN ARABERAKO PARTAIDETZA.....	15
B.3.2. PARTE-HARTZAILEAK SEXUAREN ARABERA.....	16
B.3.3. PARTE-HARTZAILEAK ADINAREN ARABERA	16
B.3.4. PARTE-HARTZAILEAK ERAGILE MOTAREN ARABERA	17
B.3.5. PARTE-HARTZAILEAK JATORRIAREN ARABERA	17
B.3.6. PARTE-HARTZAILEAK AUZOAREN ARABERA.....	18

C. EMAITZAK ETA EKARPENAK19

C.1. ELKARRIZKETAK	19
- 1. elkarrizketa	19
- 2. elkarrizketa	21
- 3. elkarrizketa	22
- 4. elkarrizketa	24
- 5. elkarrizketa	26
- 6. elkarrizketa	28

C.2. ITZULTZE-SAIOAK.....	29
- 1. Itzultze-saioa.....	40
- 2. Itzultze-saioa.....	43
- 3. Itzultze-saioa.....	44
- 4. Itzultze-saioa.....	45
- 5. Itzultze-saioa.....	48
- 6. Itzultze-saioa.....	49

C.3. PRESTAKUNTZA-SAIOA	50
--------------------------------------	-----------

C.4. PROPOSAMEN-SAIOAK	51
- 1. Proposamen-saioa	53
- 2. Proposamen-saioa	54
- 3. Proposamen-saioa	55

D. EBALUAZIOA ETA ONDORIOAK.....57

D.1. I. BLOKEA: HIRI-EREDUA	57
D.1.1. ANIZTASUNA ETA TRINKOTASUNA	57
D.1.2. ETXEBIZITZA ETA KOHESIO SOZIALA	58
D.2. II. BLOKEA: UDALERRIKO IBILBIDEAK	59
D.2.1. SEGURTASUNA	59
D.2.2. MUGIKORTASUNA	60
D.2.3. IRISGARRITASUNA	61
D.3. III. BLOKEA: ZUZKIDURAK	61
D.3.1. ESPAZIO LIBREA	61
D.3.2. EKIPAMENDUAK	62
D.4. IV. BLOKEA: ZEHARKAKO GAIAK	63
D.4.1. IRUDIKAPEN SINBOLIKOA ETA BERDINTASUNEN GIZARTE AITORPENA	63
D.4.2. HIZKUNTZA ETA IRUDI EZ SEXISTAK	63
D.4.3. GOBERNANTZA	63

ÍNDICE

A. ANTECEDENTES Y MARCO DE TRABAJO	7
A.1. AVANCE DEL PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA (PGOU) DE DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN.....	7
A.2. MARCO DE TRABAJO PARA LA INTEGRACIÓN DE LA PERSPECTIVA DE GÉNERO EN EL AVANCE DE LA REVISIÓN DEL PGOU	7
B. DESCRIPCIÓN DEL PROCESO DE PARTICIPACIÓN	9
B.1. OBJETIVOS, METODOLOGÍA, AGENTES Y CANALES DE PARTICIPACIÓN	9
B.1.1. OBJETIVOS DEL PROCESO DE PARTICIPACIÓN.....	9
B.1.2. METODOLOGÍA DE PARTICIPACIÓN.....	9
B.1.3. AGENTES PARTICIPANTES.....	10
B.1.4. CANALES DE PARTICIPACIÓN.....	11
B.2. COMUNICACIÓN DEL PROCESO DE PARTICIPACIÓN	15
B.3. INDICADORES DE PARTICIPACIÓN	15
B.3.1. NÚMERO DE PARTICIPANTES Y PARTICIPACIÓN POR CANAL.....	15
B.3.2. PARTICIPANTES POR SEXO	16
B.3.3. PARTICIPANTES POR EDAD	16
B.3.4. PARTICIPANTES POR TIPO DE AGENTE.....	17
B.3.5. PARTICIPANTES POR PROCEDENCIA	17
B.3.6. PARTICIPANTES POR BARRIO.....	18
C. RESULTADOS Y APORTACIONES	19
C.1. ENTREVISTAS.....	19
- Entrevista 1.....	19
- Entrevista 2.....	21
- Entrevista 3.....	22
- Entrevista 4.....	24
- Entrevista 5.....	26
- Entrevista 6.....	28
C.2. SESIONES DEVOLUTIVAS	29
- Sesión devolutiva 1.....	40
- Sesión devolutiva 2.....	43
- Sesión devolutiva 3.....	44
- Sesión devolutiva 4.....	45
- Sesión devolutiva 5.....	48
- Sesión devolutiva 6.....	49

C.3. SESIÓN FORMATIVA..... 50**C.4. SESIONES PROPOSITIVAS 51**

- Sesión propositiva 1 53
- Sesión propositiva 2 54
- Sesión propositiva 3 55

D. EVALUACIÓN Y CONCLUSIONES..... 57**D.1. BLOQUE I: MODELO URBANO 57****D.1.1. DIVERSIDAD Y COMPACIDAD 57****D.1.2. VIVIENDA Y COHESIÓN SOCIAL 58****D.2. BLOQUE II: RECORRIDOS EN EL MUNICIPIO 59****D.2.1. SEGURIDAD 59****D.2.2. MOVILIDAD 60****D.2.3. ACCESIBILIDAD 61****D.3. BLOQUE III: DOTACIONES 61****D.3.1. ESPACIO LIBRE..... 61****D.3.2. EQUIPAMIENTOS 62****D.4. BLOQUE IV: TEMAS TRANSVERSALES 63****D.4.1. REPRESENTACIÓN SIMBÓLICA-RECONOCIMIENTO SOCIAL IGUALITARIO 63****D.4.2. LENGUAJE E IMÁGENES NO SEXISTAS 63****D.4.3. GOBERNANZA..... 63**

A. AURREKARIAK ETA LAN- ESPARRUA

A.1. DONOSTIAKO HIRI ANTOLAMENDUKO PLAN OROKORRAREN (HAPO) AURRERAKINA

Partaidetza-prozesu hau Donostiako Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren Aurrerakinaren barruan kokatzen da, zehazki, plan horretan genero-ikuspegia txertatzeko azterlanean.

A.2. GENERO-IKUSPEGIA HIRI- ANTOLAMENDUKO PLAN OROKORRAREN BERRIKUZPENAREN AURRERAKINEAN TXERTATZEKO LAN- ESPARRUA

Helburua da genero-hirigintza inklusiboaren ikuspegitik kontuan hartzen diren hausnarketa-gaiei dagokienez, udalerrriaren egungo egoera, abiapuntua eta herritartasuna ezagutzea:

- I. Blokea: Hiri-eredua: aniztasuna eta trinkotasuna, etxebizitza eta gizarte-kohesioa.
- II. Blokea: Udalerriko ibilbideak: segurtasuna, mugikortasuna eta irisgarritasuna.
- III. Blokea: Zuzkidurak: espazio libreak eta ekipamenduak eta zerbitzuak.
- IV. Blokea: Zeharkako gaiak: irudikapen sinbolikoa-berdintasunezko gizarte-aitorpena, hizkuntza eta irudi ez-sexistak eta gobernantza.

Azken batean, hasierako diagnostikoa osatu nahi da, herritarren ekarpenak kontuan hartuta

A. ANTECEDENTES Y MARCO DE TRABAJO

A.1. AVANCE DEL PLAN GENERAL DE ORDENACIÓN URBANA (PGOU) DE DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN

Este proceso de participación se enmarca dentro del Avance del Plan General de Ordenación Urbana de Donostia / San Sebastián, concretamente en el Estudio para la integración de la perspectiva de género en dicho plan.

A.2. MARCO DE TRABAJO PARA LA INTEGRACIÓN DE LA PERSPECTIVA DE GÉNERO EN EL AVANCE DE LA REVISIÓN DEL PGOU

El objetivo es conocer el estado actual, el punto de partida del municipio y su ciudadanía respecto a las materias de reflexión que se consideran desde la perspectiva de género-urbanismo inclusivo:

- Bloque I: Modelo urbano: diversidad y compacidad, vivienda y cohesión social.
- Bloque II: Recorridos en el municipio: seguridad, movilidad y accesibilidad.
- Bloque III: Dotaciones: espacios libres y equipamientos y servicios.
- Bloque IV: Temas transversales: representación simbólica-reconocimiento social igualitario, lenguaje e imágenes no sexistas y gobernanza.

En definitiva, se pretende completar el diagnóstico inicial en base a la incorporación de aportaciones de la ciudadanía.

B. PARTAIDETZA- PROZESUAREN DESKRIBAPENA

B. DESCRIPCIÓN DEL PROCESO DE PARTICIPACIÓN

B.1. HELBURUAK, METODOLOGIA, ERAGILEAK ETA PARTE-HARTZEKO BIDEAK

B.1. OBJETIVOS, METODOLOGÍA, AGENTES Y CANALES DE PARTICIPACIÓN

B.1.1. PARTE-HARTZE PROZESUAREN HELBURUAK

Donostiako HAPOren Aurrerakinean genero-ikuspegia txertatzeko Azterlanean parte-hartzeak hiru helburu nagusi ditu:

- **INFORMATZEA ETA SENTSIBILIZATZEA** HAPOren Aurrerakinean genero-ikuspegia txertatzeari buruz, arreta berezia jarritz hainbat emakume-profilen parte-hartzean.
- Diagnostikoa eta hobekuntza-proposamenak **KONTRASTATZEA**, ikuspegi desberdinak emango dituen parte-hartze erreala eta eraginkorra erraztuz.
- Landutako gaien adostasun-maila **ADOSTEA ETA IKUSARAZTEA**, ikuspuntu tekniko hutsa zabalduz.

B.1.1. OBJETIVOS DEL PROCESO DE PARTICIPACIÓN

La participación en el Estudio de integración de la perspectiva de género en el Avance del PGOU de Donostia / San Sebastián persigue tres objetivos principales:

- **INFORMAR Y SENSIBILIZAR** sobre la integración de la perspectiva de género en el Avance del PGOU, poniendo especial foco en la participación de diversos perfiles de mujeres.
- **CONTRASTAR** el diagnóstico y propuestas de mejora, facilitando una participación real y efectiva que aporte diferentes puntos de vista.
- **CONSENSUAR y VISIBILIZAR** el grado de consenso de los temas tratados, ampliando el punto de vista puramente técnico.

B.1.2. PARTE-HARTZEKO METODOLOGIA

Planteatutako helburuak lortzeko, metodologiak hiru etapa ditu: elkarrizketak, itzultze-saioak eta inkestak.

Elkarrizketen etapan, 6 elkarrizketa egin zitzaizkien hainbat talde eta kolektibori, gaiari buruzko ikuspegi globala eta askotarikoa eman zutenak.

Itzultze-saioen etapan, bilerak egin ziren kolektiboekin, elkarrizketetan jasotako informazioaren ondorioak aurkezteko. Etapa honen barruan.

Proposamen-saioen etapan, kolektiboekin bilerak egin ziren, hiriaren egungo egoera hobetzeko proposamenak eta ekarpenak egin ahal izateko.


B.1.2. METODOLOGÍA DE PARTICIPACIÓN

Para alcanzar los objetivos planteados, la metodología cuenta con tres etapas: entrevistas, sesiones devolutivas y sesiones propositivas.

La etapa de entrevistas consistió en 6 entrevistas a diferentes grupos y colectivos que aportaron una visión global y diversa de la materia.

La etapa de sesiones devolutivas consistió en reuniones con los colectivos para presentar las conclusiones de la información recogida en las entrevistas.

La etapa de sesiones propositivas consistió en unas reuniones con los colectivos para que pudieran realizar sus propuestas y aportaciones con el objetivo de mejorar la situación actual de la ciudad.



HAPÖren Aurrerakinean genero-ikuspegia txertatzeari buruz parte hartzeko gaikako blokeak.

Bloques temáticos para la participación sobre la integración de la perspectiva de género en el Avance del PGOU.

B.1.3. ERAGILE PARTE-HARTZAILEAK

Parte-hartze prozesua Donostiako hainbat talde eta elkarteri irekita egon da. Gaiarekin zerikusia izan edo ez, adin, lan-egoera, mendekotasun-maila eta abarreko emakumeak biltzen dituzten elkarteei egin zitzaizen deialdia.

Askotariko profilak bilatzeko ahalegina egin zen, eta honako hauek lortu ziren:

- Emakumeak eta Hiria Foroa.
- Juntura kooperatiba.
- Intziri Donostiako Neska Gazte Taldea.
- Ekialdeko Barrutiko Berdintasun Lantaldea.
- Emakumeen Etxeko jatorri askotariko emakumeen kulturarteko gunea.
- Desgaitasuna duten emakumeen ahalduztze-taldea.
- Donostiako Berdintasunaren Kontseilu Sektoriala.
- ASPEGI (Gipuzkoako Emakume Enpresari, Profesional eta Zuzendarien Elkartea).

B.1.3. AGENTES PARTICIPANTES

El proceso participativo ha estado abierto a diferentes colectivos y asociaciones de Donostia / San Sebastián. Se convocaron a asociaciones relacionadas o no con el tema, que agrupasen a mujeres de diferente edad, situación laboral, grado de dependencia, etc.

Se realizó el esfuerzo de buscar perfiles variado, y se consiguieron los siguientes:

- Foro Mujeres y Ciudad.
- Juntura kooperatiba.
- Intziri Donostiako Neska Gazte Taldea.
- Grupo de Trabajo de Igualdad del Distrito Este.
- Espacio intercultural para mujeres de diversos orígenes de la Casa de las Mujeres.
- Grupo de empoderamiento de mujeres con discapacidad.
- Consejo Sectorial para la Igualdad de Donostia / San Sebastián.
- Asociación de Mujeres Empresarias, Profesionales y Directivas de Gipuzkoa (ASPEGI).

B.1.4. PARTE-HARTZE BIDEAK

Ahalik eta pertsona gehienek parte-hartzea errazteko, prozesuak bide digitalak eta presentzialak konbinatu zituen: Donostiako hainbat kolektibo eta elkarteri egindako elkarrizketak presentzialak izan ziren, euskaraz eta egun gutxi batzuetan kontzentratuak, itzultze-saioak ere presentzialki egin ziren, inkestek bertsio bat paperean eta beste bat digitalean izan zuten, biak bi hizkuntzetan eskuragarri, proposamen-saioei dagokienez ere, presentzialki eta euskaraz egin ziren.

B.1.4. CANALES DE PARTICIPACIÓN

Para facilitar la participación de la mayor cantidad y diversidad de personas, el proceso combinó los canales digital y presencial: las entrevistas a diferentes colectivos y asociaciones de Donostia / San Sebastián fueron presenciales, en euskera y concentradas en unos pocos días, las sesiones devolutivas también se realizaron presencialmente, las encuestas tuvieron una versión en papel y otra digital, ambas versiones disponibles en los dos idiomas y las sesiones propositivas también se realizaron en euskera y presencialmente.

PARTE HARTZEKO BIDEAK / CANALES DE PARTICIPACIÓN					
1	Elkarrizketak Entrevistas	Emakumeak eta Hiria Foroa Foro Mujeres y Ciudad	2022/11/21 21/11/2022	Donostiako Emakumeen Etxea Casa de las Mujeres de Donostia / San Sebastián	- 50-64 urte bitarteko 2 emakume. - 65 urte baino gehiagoko emakume 1. - 2 mujeres de entre 50-64 años. - 1 mujer mayor de 65 años.
		Juntura kooperatiba eta Intziri Donostiako Neska Gazte Taldea Juntura kooperatiba e Intziri Donostiako Neska Gazte Taldea	2022/11/23 23/11/2022	Donostiako Emakumeen Etxea Casa de las Mujeres de Donostia / San Sebastián	- 18-29 urte bitarteko 2 emakume (Intziri). - 30-49 urte bitarteko emakume 1 (Juntura). - 2 mujeres de entre 18-29 años (Intziri) - 1 mujer de entre 30-49 años (Juntura)
		Ekialdeko Barrutiko Berdintasun Lantaldea Grupo de Trabajo de Igualdad del Distrito Este	2022/11/23 23/11/2022	Donostiako Emakumeen Etxea (Altza) Tenencia de Alcaldía del Distrito Este (Altza)	- 50-64 urte bitarteko 4 emakume. - 65 urte baino gehiagoko emakume 1. - 4 mujeres de entre 50-64 años. - 1 mujer mayor de 65 años.
		Desgaitasuna duten emakumeen ahalduntze-taldea Grupo de empoderamiento de mujeres con discapacidad	2022/11/24 24/11/2022	Donostiako Emakumeen Etxea Casa de las Mujeres de Donostia / San Sebastián	- 18-29 urte bitarteko 2 emakume. - 30-49 urte bitarteko 3 emakume. - 50-64 urte bitarteko emakume 1. - 2 mujeres de entre 18-29 años. - 3 mujeres de entre 30-49 años. - 1 mujer de entre 50-64 años.
		Jatorri askotariko emakumeen kulturarteko gunea Espacio intercultural para mujeres de diversos orígenes	2022/12/01 01/12/2022	Donostiako Emakumeen Etxea Casa de las Mujeres de Donostia / San Sebastián	- 18-29 urte bitarteko emakume 1. - 30-49 urte bitarteko 4 emakume. - 1 mujer de entre 18-29 años. - 4 mujeres de entre 30-49 años.
		Donostiako Berdintasunaren	2022/12/15	Donostiako Udaletxea	- 50-64 urte bitarteko 5 emakume.

		Kontseilua Consejo para la Igualdad de Donostia / San Sebastián	15/12/2022	Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián	- 65 urte baino gehiagoko 5 emakume. - 5 mujeres de entre 50-64 años. - 5 mujeres mayores de 65 años.
2	Itzultze-saioak Sesiones devolutivas	Emakumeak eta Hiria Foroa Foro Mujeres y Ciudad	2023/02/20 20/02/2023	Donostiako Emakumeen Etxea Casa de las Mujeres de Donostia / San Sebastián	- 30-49 urte bitarteko emakume 1. - 50-64 urte bitarteko 2 emakume. - 65 urte baino gehiagoko 2 emakume. - 1 mujer de entre 30-49 años. - 2 mujer de entre 50-64 años. - 2 mujeres mayores de 65 años.
		Ekialde Barrutiko Berdintasun Lantaldea Grupo de trabajo de Igualdad del Distrito Este	2023/02/22 22/02/2023	Donostiako Emakumeen Etxea (Altza) Tenencia de Alcaldía del Distrito Este (Altza)	- 50-64 urte bitarteko emakume 1. - 65 urte baino gehiagoko 3 emakume. - 1 mujer de entre 50-64 años. - 3 mujeres mayores de 65 años.
		Jatorri askotariko emakumeen kulturarteko gunea Espacio intercultural para mujeres de diversos orígenes	2023/02/23 23/02/2023	Donostiako Emakumeen Etxea Casa de las Mujeres de Donostia / San Sebastián	- 30-49 urte bitarteko 4 emakume. - Adina adierazi ez duen emakume bat. - 4 mujeres de entre 30-49 años. - Una mujer que no ha indicado su edad.
		Desgaitasuna duten emakumeen ahalduntze-taldea Grupo de empoderamiento de mujeres con discapacidad	2023/02/24 24/02/2023	Donostiako Emakumeen Etxea Casa de las Mujeres de Donostia / San Sebastián	- 18-29 urte bitarteko 3 emakume. - 50-64 urte bitarteko 4 emakume. - 65 urte baino gehiagoko emakume 1. - 3 mujeres de entre 18-29 años. - 4 mujeres de entre 50-64 años. - 1 mujer mayores de 65 años.
		ASPEGI ASPEGI	2023/03/10 10/03/2023	Donostiako Emakumeen Etxea Casa de las Mujeres de Donostia / San Sebastián	- 30-49 urte bitarteko 4 emakume. - 50-64 urte bitarteko 2 emakume. - 4 mujeres de entre 30-49 años. - 2 mujeres de entre 50-64 años.
		Donostiako Berdintasunaren Kontseilu Sektoriala Consejo para la Igualdad de Donostia / San Sebastián	2023/03/15 15/03/2023	Donostiako Udaletxea Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián	- 50-64 urte bitarteko 5 emakume. - 65 urte baino gehiagoko 5 emakume. - 5 mujeres de entre 50-64 años. - 5 mujeres mayores de 65 años.
3	Prestakuntza-saioa Sesión formativa	Udal-teknikariak eta Donostiako Udaleko langileak Técnicas municipales y personal del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián	2023/04/20 20/04/2023	Donostiako Udaletxea Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián	- 30-49 urte bitarteko 2 emakume. - 50-64 urte bitarteko 3 emakume. - 2 mujeres de entre 30-49 años. - 3 mujeres de entre 50-64 años.
4	Proposamen-saioak Sesiones	Emakumeak eta Hiria Foroa eta Intziri Donostiako Neska Gazte Taldea Foro Mujeres y Ciudad e	2023/04/17 17/04/2023	Donostiako Udaletxea Ayuntamiento de Donostia / San	- 18-29 urte bitarteko 2 emakume. - 50-64 urte bitarteko emakume 1. - 65 urte baino gehiagoko emakume 1.

devolutivas	Intziri Neska Gazte Taldea		Sebastián	- 2 mujeres de entre 18-29 años. - 1 mujer de entre 50-64 años. - 1 mujer mayor de 65 años.
	Donostia Lagunkoia Donostia Lagunkoia	2023/04/20 20/04/2023	Donostiako Udaletxea Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián	
	Desgaitasuna duten emakumeen ahalduztze-taldea eta ASPEGI Grupo de empoderamiento de mujeres con discapacidad y ASPEGI	2023/04/21 21/04/2023	Donostiako Emakumeen Etxea Casa de las Mujeres de Donostia / San Sebastián.	- 18-29 urte bitarteko 2 emakume (Elkartuko ordezkariak). - 30-29 urte bitarteko 2 emakume (horietako bat Aspegiko ordezkaria). - 50-64 urte bitarteko 2 emakume (horietako bat Elkartuko ordezkaria). - 2 mujeres de entre 18-29 años (representantes de Elkartu). - 2 mujeres de entre 30-49 años (una de ellas representante de Apesgi). - 2 mujeres de entre 50-64 años (una de ellas representante de Elkartu).





B.2. PARTE-HARTZE PROZESUAREN KOMUNIKAZIOA

Komunikazio-estrategiak bi helburu izan ditu:

- Proiektua ezagutaraztea eta HAPOren Aurrerakinean berdintasunari buruz sentsibilizatzea.
- Parte-hartzaile, kolektibo eta elkarte-talde gehiago gonbidatzea parte-hartzera, gaiaren perspektiba globala lortzeko.

Kolektibo eta elkarte desberdinekiko komunikazioa Donostiako Udaleko Berdintasun Sailaren bitartez egin da.

B.2. COMUNICACIÓN DEL PROCESO DE PARTICIPACIÓN

La estrategia de comunicación ha tenido un doble objetivo:

- Dar a conocer el proyecto y sensibilizar sobre la igualdad en el Avance PGOU.
- Invitar a participar a una mayor cantidad y diversidad de participantes, colectivos y asociaciones relacionadas para conseguir una perspectiva global de la materia.

La comunicación con los diferentes colectivos y asociaciones se ha hecho a través del departamento de Igualdad del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián.

B.3. PARTE-HARTZEAREN ADIERAZLEAK

B.3. INDICADORES DE PARTICIPACIÓN


B.3.1. PARTE-HARTZAILE KOPURUA ETA BIDEAREN ARABERAKO PARTZAIDETZA

Guztira 94 parte-hartzaile izan direla kalkulatu da, Donostiako Udaleko langileei egindako prestakuntza-saioa kontuan hartu gabe.

B.3.1. NÚMERO DE PARTICIPANTES Y PARTICIPACIÓN POR CANAL

El número global de participantes se estima en 94 personas, sin incluir la sesión formativa que se ha realizado al personal del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián.

Parte hartzeko bideak / Canales de participación



Bidearen araberako partaidetza.
Participación por canal.

B.3.2. PARTE-HARTZAILEAK SEXUAREN ARABERA

Sexuaren araberako segmentazioari dagokionez, % 96 emakumeak dira eta % 4 gizonak.


Prozesu honetan ez da pertsonarik egon bere burua "beste identitate" gisa definitzen duenik.

B.3.2. PARTICIPANTES POR SEXO

En cuanto a segmentación por sexo, la proporción global es de 96 % mujeres y 4 % hombres.

En este proceso no ha habido personas que se definan como "otras identidades"

Sexua / Sexo



Sexuaren araberako partaidetza.

Participación por sexo.

B.3.3. PARTE-HARTZAILEAK ADINAREN ARABERA

Partaidetza orokorra, adinaren arabera, Gausseko kanpai gisa banatzen da; adin-tarterik adierazgarrienak 30-49, 50-65 eta 65 urtetik gorakoak dira, eta 18-29ko tartean behera egin dute.

Parte hartzeko saioetan, parte hartzerik ez duten adin-tarteak daude, hala nola 18 urtetik beherakoena.

Parte-hartzaileen adin-tarteak zehazteko, saio bakoitzean banatu diren partaidetza-fitxak bete dira.


B.3.3. PARTICIPANTES POR EDAD

La participación global por edad se estratifica en forma de campana de Gauss, siendo los rangos de edad más representados los de 30-49, 50-65 y mayores de 65 y descendiendo en el rango de 18-29

En las sesiones de participación, hay rangos de edad con nula participación como es el de menores de 18 años.

Los rangos de edad de las personas participantes se han definido rellenando una fichas de participación que se ha repartido en cada sesión.

Adina / Edad



Adinaren araberako partaidetza.

Participación por edad.


B.3.4. PARTE-HARTZAILEAK ERAGILE MOTAREN ARABERA

Prozesua, batez ere, mota eta jatorri desberdineko elkarte eta kolektiboei zuzendu zaie, eta, beraz, eragile mota % 93n elkarteak dira.

B.3.4. PARTICIPANTES POR TIPO DE AGENTE

El proceso ha sido dirigido mayoritariamente a asociaciones y colectivos de diferente índole y procedencia por lo que el tipo de agente es en un 93 % de asociaciones.

Eragile mota / Tipo de agente



Eragile motaren arabera partaidetza.
Participación por tipo de agente.


B.3.5. PARTE-HARTZAILEAK JATORRIAREN ARABERA

Parte-hartzaile gehienak Donostian bizi dira (% 81), baina Andoaineko (% 4), Eibarreko (% 3), Pasaia (% 3), Lasarte-Oriako (% 6) eta Hernaniko (% 3) jendeak ere hartu du parte.

B.3.5. PARTICIPANTES POR PROCEDENCIA

La gran mayoría de las personas participantes residen en Donostia / San Sebastián (81 %) aunque también ha participado gente de Andoain (4 %), Eibar (3 %), Pasaia (3 %), Lasarte-Oria (6 %) y Hernani (3 %).


Herria / Municipio



Jatorriaren arabera partaidetza.
Participación por tipo de agente.

B.3.6. PARTE-HARTZAILEAK AUZOAREN ARABERA

Partaidetza-ehuneko handiena duen auzoa Amaraberri da (% 21), ondoren, Erdialdea (% 14), Altza, Aiete, Antigua-Ondarreta, Gros eta Intxaurrondo (% 11 bakoitzak) eta, gero, Egia (% 5) eta Añorga (% 2).



Auzoaren arabera partaidetza.
Participación por barrio.

B.3.6. PARTICIPANTES POR BARRIO

El barrio con mayor porcentaje de participación es Amaraberri (21 %), seguido de Erdialdea (14 %), Altza (12 %), Aiete, Antigua-Ondarreta, Gros e Intxaurrondo (11 % cada uno) y después se sitúan Egia (5 %) y Añorga (2 %).

C. EMAITZAK ETA EKARPENAK

C. RESULTADOS Y APORTACIONES

C.1. ELKARRIZKETAK

Elkarrizketen etapan 6 elkarrizketa egin zaizkie gaiari buruzko ikuspegi globala eta askotarikoa eman duten talde eta kolektiboek. Etapa honetan, parte hartu duten kolektiboen lehen balorazioak eta iritziak jaso eta gaika laburbildu dira.

1. ELKARRIZKETA

- Taldea: Emakumeak eta hiria Foroa.
- Noiz: 2022ko azaroaren 21a.
- Non: Donostiako Emakumeen Etxea.
- Parte-hartzaileak:
 - 50-64 urte bitarteko 2 emakume.
 - 65 urte baino gehiagoko emakume 1.

Aniztasuna eta trinkotasuna

Aniztasuna eta trinkotasunari dagokionez, hiriko auzo eta eremu ezberdinen artean desoreka handia dagoela diote. Beraz, auzo batzuetan (Intxaurrondo, Mirakruz-Bidebidea), egunerokotasunean arazo askorekin aurkitzen dira: desplazamenduak, kontziliazio-arazoak, segurtasun falta...

Lanpostuak hiri-kanpoaldera eramatearen aurka daude. Gainera, ofizinak etxebizitzetan egotearen aldekoak dira, inguruan aktibitatea sortzen baitute.

Bestalde, lokalentzako alokairua sozialak egonez gero, aktibitatea txertatzea errazagoa izango zela uste dute. Gaur egungo alokairuen prezioak direla eta, oso zaila da komertzio berriak irekitzea.

Etxebizitza eta kohesio soziala

Etxebizitzek malgutasun gutxi eskaintzen dutela diote, hau da, ez datozela bat egungo beharrek: zaintza-maila ezberdinak, telelana egiteko beharrezko tokia eta abar.

Horren harira, Emakumeak eta hiria Forotik denbora asko daramate aldarrikatzen bizitegi-eraikinetan

C.1. ENTREVISTAS

La etapa de entrevistas ha consistido en 6 entrevistas a diferentes grupos y colectivos que han aportado una visión global y diversa de la materia. En esta etapa se han recogido las primeras valoraciones y opiniones de los colectivos participantes y se han resumido por temáticas.

ENTREVISTA 1

- Grupo: Foro Mujeres y Ciudad.
- Cuando: 21 de noviembre de 2022.
- Donde: Casa de las Mujeres de Donostia / San Sebastián.
- Participantes:
 - 2 mujeres de entre 50-54 años.
 - 1 mujer mayor de 65 años.

Diversidad y compacidad

En cuanto a la diversidad y compacidad, se dice que existe un gran desequilibrio entre los diferentes barrios y zonas de la ciudad. Así, en algunos barrios (Intxaurrondo, Mirakruz-Bidebidea) se encuentran con muchos problemas en el día a día: desplazamientos, problemas de conciliación, inseguridad...

Se oponen al traslado de puestos de trabajo al exterior de la ciudad. Además, consideran que es importante tener oficinas dentro de los edificios de vivienda, ya que generan actividad en el entorno.

Por otra parte, consideran que, si hubiera alquileres sociales para los locales, sería más fácil insertar actividad. Los precios de los alquileres actuales hacen muy difícil abrir nuevos comercios.

Vivienda y cohesión social

Consideran que las viviendas ofrecen poca flexibilidad, es decir que no solucionan las necesidades actuales: diferentes niveles de cuidado, espacio necesario para teletrabajar, etc.

Desde el Foro de Mujeres y Ciudad se viene reivindicando desde hace mucho tiempo dar un uso a

dauden lokal-hutsei erabilera bat emateko; eta interesgarria ikusten dute lokal huts hauek telelana egiteko espazio edo eta gune-amankomun bezala erabiltzea.

Segurtasuna

Hiriko puntu ez-seguruak eta puntu ez-seguruak eragiten dituzten elementuak eta faktoreak lantzeko beharra aipatu da.

Mugikortasuna

Auzoek erdigunearekin duten lotura ona den arren, auzoen arteko loturak hobetu behar direla uste dute, batez ere oinezko eta bizikleta bideekin.

Kasu askotan, oinezkoen eta bizikleten artean arazo asko sortzen direla diote, bideek bat egiten baitute tokia falta delako (Ategorrietako ikastetxetik igarotzen den bidegorrian, edo eta Kursaal aurrean).

Irisgarritasuna

Irisgarritasunari dagokionez, hiriko auzo eta eremu ezberdinen artean desoreka handia dagoela diote. Malda asko duten auzoetan, jende askok beraien etxeetatik ezin direla atera aldarrikatzen dute, ez baitute ibilbide irisgarriak inguruan.

Bestalde, espazio publikoa pribatizatzearen aurka daude, hau da, tabernetako terrazak (Boulevardean, Gipuzkoa plazako portxeetan...) edo eta komertzioen kartelak espazio publikoan jartzearen aurka, arazo asko sortzen baitzikiete mugikortasun-murritzua duten pertsonen.

Ekipamenduak

Ekipamenduei dagokionez, hiriko auzo eta eremu ezberdinen artean desoreka handia dagoela diote.

Urumeako ibarrean egin diren garapenetan ez dira ekipamendurik aurreikusi. Ez dago irakaskuntza-zentrorik ez osasun-zentrorik. Bertan bizi diren pertsona guztiak Amarako osasun-zentrori joaten dira.

Bestalde, adinekoentzako egoitzak hirigunean kokatu behar direla diote. Egun, adinekoentzako egoitzak irisgarriak ez diren eremuetan daude, eta bertan dauden pertsonak eta horiek zaintzen dituztenak, gehienbat heltzeko zailtasunak dituzten emakumeak, isolaturik daude.

Beraz, hirigunean zaintzarekin lotutako ekipamendu gehiago behar dira aldarrikatzen dute.

Era berean, denbora daramate Emakumeen Etxe berri bat aldarrikatzen, baldintza onak izango dituen (beharrezko baliabideak, leku nahikoa, kokapen ona, irisgarritasun unibertsala zeharo betetzen duena, etab.), egungo Etxearen gabeziak direla eta (espazio gutxi, espazio gehienak ez dira irisgarriak, baliabide gutxi ditu...).

los locales vacíos. Consideran interesante la utilización de estos locales vacíos como espacios comunes de las viviendas o espacios para teletrabajar.

Seguridad

Se comenta la necesidad de trabajar los puntos inseguros de la ciudad y los elementos y factores que los hacen puntos inseguros.

Movilidad

Aunque la conexión de los barrios con el centro es buena, consideran que hay que mejorar las conexiones entre los barrios, sobre todo con recorridos peatonales y ciclistas.

En muchos casos se dice que hay muchos problemas entre peatones y bicicletas, ya que las vías confluyen por la falta de espacio (en el carril bici que pasa por el centro escolar de Ategorrieta o frente al Kursaal).

Accesibilidad

En cuanto a la accesibilidad, señalan que existe un gran desequilibrio entre los diferentes barrios y zonas de la ciudad. En los barrios altos de la ciudad, mucha gente reivindica que no pueden salir de sus casas porque no tienen itinerarios accesibles en la zona.

Por otro lado, se oponen a la privatización del espacio público, es decir, a la instalación de terrazas de bares (en el Boulevard, en los porches de la plaza Gipuzkoa...) o carteles comerciales en el espacio público. Generan muchos problemas a las personas con movilidad reducida.

Equipamientos

En cuanto a los equipamientos, señalan que existe un gran desequilibrio entre los diferentes barrios y zonas de la ciudad.

Los desarrollos realizados en la vega del Urumea no contemplan equipamientos. No hay centros de enseñanza ni de salud. Todas las personas que viven en él acuden al centro de salud de Amara.

Por otro lado, señalan que las residencias para personas mayores deben situarse en el centro urbano. En la actualidad, las residencias de ancianos se encuentran en zonas no accesibles y, por lo tanto, las personas que las habitan y las personas cuidadoras, en su gran mayoría mujeres dificultad de acceso están aisladas.

Reivindican un mayor número de equipamientos relacionados con el cuidado en el centro urbano.

Asimismo, llevan tiempo reivindicando una nueva Casa de las Mujeres que cumpla y cuente con buenas condiciones (recursos necesarios, espacio suficiente, buena ubicación, accesibilidad universal, etc.), habida cuenta de las deficiencias y carencias de la actual Casa (poco espacio, no accesible en su mayoría, con pocos recursos...).

Espazio libreak eta zuzkidurak

Espazio libreak oso garrantzitsuak direla aldarrikatzen dute, zaintza asko eremu hauetan ematen baitira (umeekin joateko edo edadeko pertsonekin paseatzeko). Beraz, espazio hauek dimentsio egokiak izateaz gain, irisgarriak izan behar dira (Ekialde Barrutiko espazio libre gehienak ez dira irisgarriak).

Oso beharrezkoa ikusten dute espazio libre hauek genero-ikuspuntutik diseinatzea.

Zuzkidurei dagokionez, beharrezkoa da ibilbidetan komun publikoak jartzea, adineko pertsona asko ez baitira etxeetatik ateratzen arrazoi honegatik. Orokorrean hiri guztian falta dira.

Adierazpen sinbolikoa

Hirirako emakumeen izenak proposatuz urteetan egindako lana komentatzen dute (kaleak ez ezik, eraikinak, eskulturak eta abar). Proposamen hori mahai gainean dago.

2. ELKARRIZKETA

- Taldea: Juntura kooperatiba eta Intziri Neska Gazte Taldea.
- Noiz: 2022ko azaroaren 23a.
- Non: Donostiako Emakumeen Etxea.
- Parte-hartzaileak:
 - 18-29 urte bitarteko 2 emakume (Intziri).
 - 30-49 urte bitarteko emakume bat (Juntura).

Aniztasuna eta trinkotasuna

Egian eta Amaraberrin bizia egiteko nahikoa eduki arren, erdigunera mugitzen dira.

Etxebizitza eta kohesio soziala

Etxebizitza eskuratzeko gazteen zailtasun adierazi dituzte.

Segurtasuna

Auzo- eta eremu-degradatuak estigmatizatzea arriskutsua dela pentsatzen dute, salaketa gehienak erdiguneko auzoetan gertatzen baitira (Poliziaren datuetan oinarrituta).

Mugikortasuna

Orokorrean, erdigunearekin lotura ona dela pentsatzen dute, baina beharrezkoa ikusten dute auzoen arteko lotura indartzea.

Bidegorri-sareak sare bat izan behar duela aldarrikatzen dute, toki askotan eten egiten baita. Arazo hau Ekialdeko Barrutian nabaria da. Altza auzoan

Espacios libres y dotaciones

Reivindican la importancia de los espacios libres, ya que muchos cuidados se dan en estos espacios (para ir con las niñas y los niños o pasear con las personas mayores). Por lo tanto, estos espacios deben tener dimensiones adecuadas y ser accesibles (la mayoría de los espacios libres del Distrito Este no son accesibles).

Ven muy necesario diseñar estos espacios libres desde la perspectiva de género.

En cuanto a las dotaciones, es necesario dotar de baños públicos a los itinerarios ya que muchas personas mayores no salen de sus hogares por este motivo. Generalmente faltan en toda la ciudad.

Representación simbólica

Comentan el trabajo realizado durante años con propuestas de nombres de mujeres para la ciudad (no solo calles, sino edificios, esculturas, etc). Esta propuesta está sobre la mesa..

ENTREVISTA 2

- Grupo: Juntura kooperatiba e Intziri Donostiako Neska Gazte Taldea.
- Cuando: 23 de noviembre de 2022.
- Donde: Casa de las Mujeres de Donostia / San Sebastián.
- Participantes:
 - 2 mujeres de entre 18-29 años (Intziri).
 - 1 mujer de entre 30-49 años (Juntura).

Diversidad y compacidad

A pesar de tener suficiente para hacer vida en Egia y Amaraberri, se mueven hacia el centro.

Vivienda y cohesión social

Comentan la dificultad del acceso a la vivienda en el caso de las personas jóvenes.

Seguridad

Consideran peligroso estigmatizar a los barrios y zonas degradadas, ya que la mayoría de las denuncias se producen en barrios céntricos (basándose en datos policiales).

Movilidad

En general, consideran que la conexión con el centro es buena, pero ven necesario reforzar la conexión entre barrios.

Reivindican que la red de bidegorris debe ser una red, ya que en muchos lugares se interrumpe. Este

esaterako, bizikleta-sistema elektrikoa behar da (dbizi elektrikoa) eta horrez gain, bizikleta-sare irisgarri bat planteatu.

Garraio publikoari dagokionez, autobus-zerbitzua ona dela diote, baina kasu askotan geltoki asko dituzte eta bidaia oso luzeak egiten dira. Aldiz, gaueko zerbitzua kaxkarra dela azpimarratu dute. Zerbitzua bukatzerakoan, oinez edo bizikletez mugitzera derrigortuak daude.

Ekialdeko Barrutian trena asko erabiltzen da.

Irisgarritasuna

Ez da ekarpenik egin.

Ekipamenduak

Gabezia hauek identifikatu dituzte:

- Erdialdean eta Parte Zaharrean kultur-etxeak falta dira.
- Urumeako ibarrean denetarikoko ekipamenduak falta dira.
- Añorga osasun-zentroa falta da.

Espazio libreak eta zuzkidurak

Gabezia hauek identifikatu dituzte:

- Espazio libre estaliak falta dira hiri osoan zehar. Parte Zaharrean oso nabaria da.
- Kontsumitu gabe egoteko espazio libreen beharra.
- Amaraberrin espazio libre gutxi dago.
- Larratxon espazio libre gutxi dago.

Adierazpen sinbolikoa

Ez da ekarpenik egin.

3. ELKARRIZKETA

- Taldea: Ekialde Barrutiko Berdintasun-lantaldea.
- Noiz: 2022ko azaroaren 23a.
- Non: Ekialdeko Barrutiko Alkateordetza (Altza).
- Parte-hartzaileak:
 - 50-64 urte bitarteko 4 emakume.
 - 65 urte baino gehiagoko emakume 1.

Aniztasuna eta trinkotasuna

Periferiako auzoen zerbitzu-maila oso txikia dela diote. Hurbileko merkataritza desagertu egin da (arraiñdegia, haragitegia...). Gainera, alokairuak oso garestiak direnez, lokal hauetan ez da aktibitate sortzen.

Garberaren handipenaren bezalako garapenak hiri-eredu berriaren aurka egon beharko luketela diote,

problema es evidente en el Distrito Este. En el barrio de Altza, por ejemplo, se necesita un sistema eléctrico de bicicletas (dBizi) y plantear una red ciclista accesible.

En cuanto al transporte público, dicen que el servicio de autobús es bueno, pero en muchos casos tienen muchas paradas y los viajes son muy largos. En cambio, subrayan que el servicio nocturno es deficiente. Al finalizar el servicio están obligadas a desplazarse a pie o en bicicleta.

En el Distrito Este se utiliza mucho el tren.

Accesibilidad

No se han hecho aportaciones.

Equipamientos

Han identificado estas carencias:

- Falta de centros culturales en el Centro y Parte Vieja.
- En la vega del Urumea faltan todo tipo de equipamientos.
- Añorga carece de centro de salud.

Espacios libres y dotaciones

Han identificado estas carencias:

- Falta de espacios libres cubiertos por toda la ciudad. Es muy visible en la Parte Vieja.
- Necesidad de espacios libres para estar sin consumir.
- Escasez de espacios libres en Amaraberri.
- Escasez de espacios libres en Larratxo.

Representación simbólica

No se han hecho aportaciones.

ENTREVISTA 3

- Grupo: Grupo de trabajo de Igualdad del Distrito Este.
- Cuando: 23 de noviembre de 2022.
- Donde: Tenencia de Alcaldía del Distrito Este (Altza).
- Participantes:
 - 4 mujeres de entre 50-64 años.
 - 1 mujer mayor de 65 años.

Diversidad y compacidad

Dicen que el nivel de servicio de los barrios periféricos es muy bajo. Desaparece el comercio de proximidad (pescadería, carnicería...). Además, los alquileres son muy caros por lo que no se genera actividad en estos locales.

auzoetako komertzioak desagerrarazi baititu, batez ere Altzan.

Periferiako auzoak lo-auzo bilakatzen ari dira, ez baitago jendea erakartzen duen kultur-aktibitate ez komertziorik. Kulturak gainontzeko aktibitate osoa erakartzen du.

Auzoetan etxebizitzak eta komertzioak egoteaz gain, lantokiak ere egon behar dute; hauek ere aktibitatea sortzen baitute auzoan.

Etxebizitza eta kohesio soziala

Etxebizitzara sartzeko arazoak direla eta, auzoetan jende heldua soilik geratzen hasi da, eta gazteek inguruko herrietara mugitu behar dute. Auzoak zaharkitzen ari dira. Honez gain, Ekialde Barrutiko etxebizitza asko zaharkituak daude, (batez ere Altzan) ez dituzte irisgarritasuna bermatzen (igogailurik gabe, malda askoko tokietan daude...) eta gainera, energeetikoki ez dituzte gutxieneko baldintzak bermatzen.

Bestalde, etxebizitzek ez dute garajerik, beraz kaleetan kotxe asko ikusten dira.

Segurtasuna

Esan bezala, Altza auzoan etxebizitzek ez dutenez garajerik, kaleetan kotxe asko daude. Kasu askoetan ibilgailuek oinezkoen espazioa bereganatu dute. Orokorrean, espaloiak oso estuak dira, eta gainera kasu askotan irristakorrak.

Mugikortasuna

Donostiako beste auzoetara oinez edo bizikletaz joateko ezinezkoa dela ikusten dute, kotxea hartzea derrigorrezkoa da. Gainera, autobus-zerbitzua ona izan arren, beste auzoetara joateko ibilbideak luzeegiak egiten direla diote.

Ekialde Barrutian hiri barruan mugitzeko trena asko erabiltzen dela diote. Gainera tren-geltokiek bizikleta zerbitzuarekin lotura ona dutela diote.

Bidegorri sareari dagokionez, Altzako goialdera iristeko bidegorririk ez dagoela ikusten dute. Gainera dbizi zerbitzua falta dela aldarrikatzen dute (bizikleta elektrikoak).

Irisgarritasuna

Ekialde Barrutiko auzoetan irisgarritasun arazo handiak direla eta, adineko pertsona asko ez dira etxetik ateratzen. Arazo hau nabarmenki azaleratzen da Oletako zonaldean.

Ekipamenduak

Orokorrean, Ekialde Barrutiko auzoetan ekipamenduak falta direla uste dute. Bestalde, auzo hauetara jendea erakartzeko, kalitatezko kultur-ekipamendu bat beharrezkoa dela ikusten dute.

Gabezia hauek identifikatu dituzte:

Dicen que desarrollos como la ampliación de Garbera deberían ir en contra del nuevo modelo de ciudad, ya que ha hecho desaparecer los comercios de los barrios, especialmente en Altza.

Los barrios de la periferia se están convirtiendo en barrios dormitorio porque no hay actividad cultural ni comercio que atraiga a la gente. La cultura atrae al resto de la actividad.

Además de las viviendas y comercios de los barrios, también deben existir centros de trabajo que generen actividad en el barrio.

Vivienda y cohesión social

Debido a los problemas de acceso a la vivienda, en los barrios ha empezado a quedar sólo gente adulta y la gente joven tienen que desplazarse a los pueblos de alrededor. Los barrios se están haciendo viejos. Además, muchas de las viviendas del Distrito Este están obsoletas, sobre todo en Altza, no garantizan la accesibilidad (sin ascensor, en zonas con mucha pendiente) y además energéticamente no garantizan unas condiciones mínimas.

Por otro lado, las viviendas no tienen garaje, por lo que se ven muchos coches en las calles.

Seguridad

En el barrio de Altza las viviendas no tienen garaje, por lo que hay muchos coches en las calles. En muchos casos los vehículos han ocupado el espacio peatonal. En general, las aceras son muy estrechas y en muchos casos resbaladizas.

Movilidad

Ven la imposibilidad de ir andando o en bicicleta a otros barrios de Donostia, es obligatorio coger el coche. Además, dicen que aunque el servicio de autobús es bueno, los trayectos a otros barrios son demasiado largos.

Dicen que en el Distrito Este se usa mucho el tren para moverse dentro de la ciudad. Además, dicen que las estaciones de tren están bien conectadas con el servicio de la bicicleta.

Respecto a la red de bidegorris, se constata la inexistencia de carriles bici para acceder a la zona alta de Altza. Además, reivindican la falta de servicio de dBizi (bicicletas eléctricas).

Accesibilidad

Los problemas de accesibilidad en los barrios del Distrito Este hacen que muchas personas mayores no salgan de casa. Este problema se manifiesta de forma notable en la zona de Oleta.

Equipamientos

En general, consideran que faltan equipamientos en los barrios del Distrito Este. Por otro lado, ven la necesidad

